



ERDIALDEKO AMERIKAKO EMAKUMEOK: HALAKOXEAK GARA, HALAXE BORROKATZEN GARA



**ERDIALDEKO AMERIKAKO EMAKUMEOK:**  
**HALAKOXEAK GARA,**  
**HALAXE BORROKATZEN**  
**GARA**

**ARGAZKIAK**

**Raquel Durán Illanesek** eta **Amaia Vicente García**k antzeko interesak dituzte. Biek Arte Ederretako ikasketak egin zituzten, diziplina anitzeko artistak dira eta sorkuntza plastikorako zenbait beka lortu dituzte

Raquel argazkilaritzan dago espezializatuta; eta Amaia, sorkuntza artistikoaren zein feminismoaren arteko harremanean (Ikaskuntza Feministak eta Generoa Ikertzeko Masterra, EHU, 2008-2010)



**ERDIALDEKO AMERIKAKO EMAKUMEOK:**  
**HALAKOXEAK GARA,**  
**HALAXE BORROKATZEN**  
**GARA**

**Ekoizpena**

Mundubat  
[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

**Argazkiak**

Raquel Durán Illanes eta Amaia Vicente García  
[www.raquelduran.com](http://www.raquelduran.com)

**Testuak**

Mundubat eta argitalpen honetan agertzen diren emakumeak

**Elkarrizketen transkripzioa**


Amaia Vicente García

**Diseinua eta edizioa**

quincemetros eta Raquel Durán Illanes  
[www.15m2.net](http://www.15m2.net)

“Emakumeak  
etxean jarraitzen  
duen bitartean,  
nekazaritzaren  
eraldaketa  
atzeratu egingo  
da”

**Leonela Solorzano**



## **ERDIALDEKO AMERIKAKO EMAKUMEOK: HALAKOXEAK GARA, HALAXE BORROKATZEN GARA**

Erdialdeko Amerikako emakumeen aurkako indarkeria handia da, eta euren eskubideak behin eta berriro urratzen dituzte. Hala ere, emakume horiek ez dira kikiltzen, eta bidegabekeria horien aurka borrokatzen dira. Erdialdeko Amerikako emakumeak ez dira biktima pasiboak, matxinatu egiten direlako eta gogor baino gogorrago lan egiten dutelako egoera horri aurre egiteko. Ez dute amore ematen, eta antolatuta daude, patriarkatuaren eta neoliberalismoaren zapalkuntza-modu guztiei aurre egiteko.

Erakusketa honetan, Guatemala, Salvador, Honduras eta Nikaraguan hartutako eszenak daude ikusgai, euren eskubideen alde lan egiten duten emakumeen indar zein duintasunaren adierazgarri.

Bizitzako arlo guztietan aktiboak diren emakumeak dira. Emakume gazteak, adinekoak, nekazariak, hiritarrak, indigenak, industria-sektoreko langileak, euren erkidegoetako osasun-sustatzaileak, enpresariak, zaintzaileak, ikasleak. Emakume horiek, gainera, borroka politikoan parte hartzen dute, feminisमतik, gizarte-mugimenduetatik, alderdi politikoetatik eta oinarritzko erakundeetatik. Horrez gain, euren eskariak agenda politikoan kontuan hartu behar dituztela aldarrikatzen dute.

Hain zuzen ere, status quoari bota diote erronka, mundua eraldatzeko duten ametsa egia bihurtu dadin. Elkarrekin dabilta, lehen ukatzen zizkieten eremuak berreskuratzen nahian, erabateko bizitza askea edukitzeko.

Mundubat-ek genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa daukanez, emakume horiek zuzendutako eraldaketa-prozesuak sustatzen ditugu.

Emakume hauek ez dute amore ematen, eta mundua aldatzeko prest daude, oraina eta etorkizuna askoz bidezkoagoak izan daitezen eta guztion eskubideak errespetatu daitezen.

# EMAKUMEEN BORROKAK

“Landa-guneko emakumeak askatasun-eskubideen alde borrokatzen dira, besteak beste”

**Victoria Chuj**  
Sololako Emakumeen Sektorea



# “Emakumeok geure asalduraren eta askatasunaren bidez jartzen gara agerian”

Edwin Rios eta Iris Ivette Abrego

Hondakin solido birziklagarrien bilatzaileak. PROCOMES





“Hementxe gaude.  
Halakoxeak  
gara. Horrelaxe  
borrokatzen gara  
duintasundun  
bizitzaren alde”

**Sandra Morán**  
Guatemalako Emakumeen Sektorea  
2010EKO EKAINAREN 30EAN, GATAZKA  
ARMATUKO BIKTIMEN OMENEZKO EKITALDIA





“Ez dugu inolaz ere onartzen oroimena, duintasuna eta gizatasuna galtzea”



“Aktibismoa, ekintza, erreakzioa eta borroka politikoa egituratzen ditugu”

“Oihu egin nahi dugu, oihu eta oihu, mundua kontzientziatzeko”

Guatemalako gizarte-mugimenduak,  
gatazka armatuko biktimen  
omenezko martxan  
Ekainaren 30a  
Guatemalako Armadaren Egun Nazionala

“Gazte askok  
entzuten  
digutenez,  
mezu feministak  
igortzen ditut”

**Bessy Vanesa Rodriguez**  
Radio Juventud 92.1 irrati esataria



# INDARKERIA

“Emakumeak gara,  
eta larrialdian dauden  
emakume bortxatuei  
laguntzen diegu”

**Giovanna Lemus, GGMko zuzendaria**  
Guatemalako Emakumeen Taldea





“Hemen, euren bizitza hobetu behar eta nahi duten emakumeei laguntzen diegu”

**Rosalba Hortensia Marroquín, Psikologoa**  
Santa Teclako udalerriko Emakumeen Etxea  
LA LIBERTAD DEPARTAMENTUA

“Borroka iraunkor bezain gatazkatsua dago, eta, bertan, gizonak sentsibilizatu behar dira”



“Emakumeentzako eremu bereziak. Emakumeen artean partekatutako eremuak”

**Mariana Moisa**  
Talde Feminista  
EMAKUMEON ETXEA



# AUTONOMIA EKONOMIKOA

“OXLAJUJE Emakume  
Ekoizle Maien Kooperatiba  
gara, eta izen horrek  
«Patuaren Hamahiru Bide»”



“Elkarrekin lan egiten dugu, geure produktuak egiteko orduan, bihar azoka daukagulako”







“Emakumeak dena administratu behar du etxean, urte osoan zehar etxera dirua ekartzen duena denean”

Gloria Imelda Vásquez Martínez eta Hugo René Ramos  
Santísima Trinidad Eko-geltokia

“Autonomia gehiago edukitzea da garrantzitsuena”

Samaj-Tzolojyá (Uzta ona) II. azoka  
Nekazaritza, oihalgintza eta  
artisautza ekoizle txiki eta ertainentzat



“Goiz-goizetik hasten gara lanean, eta, gero, geure gozokiak saltzen ditugu”



“«Janari-denda»  
honek autonomia  
ematen dit, eta  
duintasunez  
bizitzeko aukera  
eskaintzen dit”



# JABEKUNTZA

“Genero-eskolak eskubide, genero eta herritartasunari buruzko mintegiak ematen dizkie emakume eta gizonei”

**Elsa Miriam Linares, Irakaslea**  
Santa Teclako Udaleko zinegotzia  
LA LIBERTAD DEPARTAMENTUA



“Egindakoa gizarte osoaren aurkakoa da, nigmatik, nire etorkizunagatik eta nire familiagati”

“Trebakuntzetan, elkar errespetatzen eta elkarri laguntzen ikasten dugu”



“Emakumeen  
elkarreentako  
trebakuntzen  
bidez, gure  
bizitzak hobera  
egingo du eten  
barik”

**Martha Hernández eta Ana Graciela Aguilar**  
NUEVA ESPERANZA ERKIDEGOKO EMAKUMEAK





**“Bide luzea dago jabekuntza politikorako eskolaraino, baina ama eta biok beti joaten gara”**

**Krissia Gabriela Martínez**  
La Junta Erkidegoko Gazteen Lantaldea

“Emakumeek  
isiltasuna hautsi  
eta elkarri  
laguntzeko  
aliantzak sortzen  
dituztela ikustea  
da nire lanaren  
alde onen”

**Roxana Noemi Contreras Reyes**, Psikologoa  
Ikaskuntza feministetako aditua  
PROCOMES





# EMAKUME LIDERRAK

“Emakume guztiok aurrera egiteko indar handia dugu”

**Rosenda Jiménez de Paz**  
Emakumeen Elkarteko kidea  
LAS MÉLIDAS



“Nire erkidegoko pertsonak  
aurkeztuko dizkizuet... itxaron  
apur batean... laster irtengo  
gara...!”

**María Magdalena Aguilar**  
Nueva Esperanza Erkidegoko liderra

“Gure emakume liderrari  
esker, erkidegoa erabat aldatu  
da, eta hobera egin du”

**Cristo Redentor Erkidegoa**



“Emakume liderrak oso errespetatuak gara geure erkidegoetan, borrokalariak garelako”

**María Ester Aguilar del Valle**  
Cristo Redentor erkidegoko liderra





“Egia esan, hemen ahizpak garela sentitzen dugu”

2000ko Belaunaldiaren  
jantoki solidarioko kideak

# HEZKUNTZA

“Elkarte feministari ematen dizkiot eskerrak, gauzak aldatu nahi ditugunean elkarri laguntzen diogulako”

**Martha Alicia Hernández**  
Nueva Esperanza Emakumeen  
Lantaldeko liderra eta kidea



“Ikastea ezagutzea eta nork bere burua onestea da. Ikastea elkarrekin eta aske hazteko aukera edukitzea da”

Mejicanosko udalerriko  
Talde Feministako gazteak

“Emakume eta gizonen berdintasunerantz hezi eta prestatu behar dugu etorkizuna”

Elian Martinez Redondo eta Nora Peña Acuña



“Gaur egungo neska-mutilen  
hezkuntza da etorkizuna”

“Emakumeok ikastea eta  
gauzak geure kabuz egitea da  
jauzi handiena”



“Ahizpa eta biok  
elkarrekin bizi  
gara. Ikasi eta  
bera zaintzen du”





# ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNA

“Lantzean behin, herrialde batean batzartzen gara, prestatzen eta lurraren zein elikaduraren subiranotasunaren aldeko borrokan elkarri laguntzen jarraitzeko”

**Sayra Carolina Ticay López**

ATC - LANDA-INGURUNEKO LANGILEEN ELKARTEA



“Gure etxean, tortillak daude beti”



“Borrokatu egiten gara, lurra kutsatu ez dadin eta, betiko moduan, hazi kreolak gure elikagaia izan daitezten”



“Lurra lantzen jarraitu behar dugu, gure etorkizuna delako”

“Borrokatu egiten gara, lurra emakumeon izenean egon dadin”

Mirna Logroño Duron Amador  
VÍA CAMPESINA





“Gure haziak zaindu beharreko elikadura dira. Gure etorkizuna dira”

Mirna Elizabeth Martínez



“Elikadura osasungarri eta iraunkorraren etorkizunaren alde borrokatzen gara”

# SEXU ETA UGALKETA ESKUBIDEAK

“Sexu eta ugalketa arloko eskubideak funtsezkoak dira emakumeen osasunari begira”

**Francis Martínez, Enfermera**  
NINDIRI-MASAYAKO SAN FRANTZISKO ESKUALDEKO  
OSASUN-ZENTROKO ARDURADUNA



“Osasun sexualaren  
gaia jorratzeko,  
prestakuntza  
feministak antolatzen  
ditugu”

**Ana Carolina Jirón, Gizarte-langilea**  
MASAYAKO EMAKUMEEN TALDEKOEMAKUME  
ETA OSASUN ARLOKO ARDURADUNA



# HAUSNARKETAK

“Hereditutako eskubidearen  
borroka sustraitua  
ospatzea”

**Cristina Julajuj**

Kaqchikel herriaren nekazaria  
ADILAS ELKARTEA, SOLOLÁ





“Idealez  
betetako bizitzaz  
gozatzea”



## **ESKERRONAK**

Argazkien eta emakumeen hitzen bidez, euren gurariak, ametsak, itxaropenak, hausnarketak eta borrokak jartzen ditugu agerian. Lan hau Erdialdeko emakumeen esperientzien isla da. Izan ere, entzunak izatea eta euren argazkiak ateratzea nahi izan dute, emakumeen giza eskubideak hizpide dituen erakusketa honetan parte hartzeko.

Eskerrik asko guzti-guztiei, euren esperientziak trukatzegatik, pertsona guztien bizitza hobetzeko orduan borroka nahiz erresistentzia beharrezkoak eta funtsezkoak direla erakustegatik eta elkarrizketa ugari bezain sakonak partekatzeagatik.

Era berean, geure eskerrik beroena Mundubat-en lan honetan lagundu diguten guztiei, Bilbon bertan zein bisitatu ditugun herrialde guztietan, baina, batez ere, Mundubat-ek Guatemalan, Salvadorren, Hondurasen eta Nikaraguan dituen ordezkarietan.

Eskerrik asko proiektu honen inguruan erakutsi dituzten arduraldi eta interesagatik, eurak barik ezinezkoa izango zelako lan hau garatzea.

Raquel Durán Illanes eta Amaia Vicente García



## Finantziazio-emaelek

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA**

*Garapen Lanikidetzarako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES**

*Dirección de Cooperación al Desarrollo*



**Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa**

*Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior*



**Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián**

*Berdintasun eta Lanikidetza Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación*